

## EUSKARAREN ERABILERA PLANAK EUSKO JAURLARITZAN

HPS-k proiektua jarri du martxan sail guztiek beren planak izateko 2007ko abendua baino lehen



**E**usko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2004an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen; bertan esaten da Eusko Jaurlaritzako sail guztiek beren erabilera planak izan behar dituztela 2007ko abendua baino lehen. Hori dela-eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proiektu bat jarri du martxan, Eusko Jaurlaritza osoan euskararen erabilera planak egiten laguntzeko.

### Helburuak eta lehentasunak

Aurreko plangintzaldietan langileen hizkuntza gaitasuna ziurtatzeari eman zitzaion garrantzia; hirugarren honetan, berriz, beharreko metodologia eta euskarriak jarri nahi dira, euskararen ezagutzatik erabilerarako jausia eman ahal izateko. Baina proiektuak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da lehentasun batzuk finkatzea. Horrenbestez, oraingo honetan bi talde hauek sartuko dira erabilera planetan: jendaurreko atalak eta plangintzaldiaren amaieran atal elebidunak izango direnak. Horietaz gain, proiektuak bide ematen du hirugarren talde bat ere barneratzeko: alegia, aurreko bi atal horietakoak ez izan arren, derrigorrezko data igarota eta dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak.

### Metodologia

Legediaren hasieran abiatu eta orain dela gutxi amaitu da proiektuaren lehen fasea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkezpenak egin

ditu sail eta autonomiadun erakunde guztietan, eta denek erabilera plana gauzatzeko konpromisoa hartu dute. Udako oporrak baino lehen bigarren aldiari ekingo zaio: egoeraren diagnostia egiteari. Handik aurrera, plangintzaren helburuak eta horiek neurtzeko adierazleak finkatuko dira, eta abendurako sail bakoitzeko ekintza plana diseinatu egingo da. Horiek horrela izanik, datorren urtean planak abian jarri eta horien jarraipena egingo da, helburuak zenbateraino betetzen diren ikusteko eta, beharrezkoa izanez gero, hobekuntza ekintzak proposatzeko.

### Batzordeak

Hori guztia aurrera doala bermatze aldera, hiru batzorde aurreikusten dira: alde batetik, sail bakoitzak bere Jarraipen Batzordea izango du; bestetik, Jaurlaritza mailan Normalkuntzako Batzorde Iraunkorra egongo da, eta bertan, besteak beste, Jarraipen Batzorde guztietako ordezkariak parte hartuko dute; azkenik, Normalkuntzako Teknikarien Batzordea ere osatuko da, kasuan kasuko esperientziak elkartrukatzeko.

Ikusten denez, plan integratua da hau, baina abiadura ezberdinetarako aukera ematen duena. Metodologia erraza erabiltzen du, eta helburu lorgarri eta neurtzeko modukoak; gainera, indarrak lehentasunezko taldeetan bildu eta agente guztien inplikazioa bilatu nahi du: sailletako agintariak, normalkuntzako teknikariak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, IVAP, eragindako lankideak... Azken batean, proiektu bateratu honek abiapuntu izan nahi du hurrengo plangintzaldiari begira.



## EUSKARAZKO AHOTSAREN TEKNOLOGIAK: ADITU PROGRAMA

Ahotsaren teknologien egungo errealitatearen, abantailen eta ezarpen-aukeren inguruko ahalik eta informazio gehien eskaintze aldera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak berariazko jardunaldi tekniko antolatu zuen, Bilbon, ekainaren 9an. Jardunaldi hori Aditu programaren sustapen eta hedapen ekintzen barnean kokatuta zegoen. Besteak beste, martxan dauden hainbat esperientzia praktikoren berri eman zen.



HPSko sailburuordea jardunaldian hitz egiten

**G**aur egungo gizartean, komunikazioa gero eta elektronikoagoa eta orokorragoa da. Europa elektronikoaren barruan euskarak bere esparrua izan dezan, beharrezkoa da gobernuek zein administrazioek politikak abian jartzea gure hizkuntzak aurrera pausak eman ditzan eta euskaldunak informazioaren eta komunikazioaren gizartean bete-betean integra daitezen.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak 1999az geroztik, "2000Hiru Ekimena" izenekoaren barruan, hainbat jarduera gauzatu du Teknologia Berriak eta Informazio Sistemak sustatzeko: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999); Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza plana: Hizkuntzaren Industriak eta Ingeniaritza Linguistikoaren programa (2001-2004); Euskadi Informazioaren Gizartean plana; eta Informatika eta Telekomunikazio Plana (2000-2003).

### Ahotsaren teknologia

Plan horiek euskararen garapen teknologikoa bermatzen dute, etengabe eta modu azkarrean aldatzen ari den arlo honetan. Hori dela eta,

behar berriak sortzen dira eta, horren ondorioz, "hizkuntzen teknologia" gero eta gehiago garatzen ari dira. Horien artean, ahotsaren teknologia ditugu, hain zuzen ere:

- **Ahotsaren ezagutza:** ordenagailu batek pertsona baten ahotsa ulertzeko duen gaitasuna. Horrela, telefono edo kablerik gabeko gailuen bitartez, edozein tokitatik eta edozein momentutan, naturaltasunez hitz eginez, informazioa lor dezakegu.
- **Ahotsaren sintesia:** giza ahotsa erabili gabe giza diskurtsoa sortzeko gaitasuna. Sintetizadore batek gizakiaren ahotsa ordezkatzen du, hau da, testu idatzi bat oinarri izanda, testu hori ahots bihurtzen du automatikoki. Ahots artifizial hori erabat naturala eta ulergarria da. Honi TTS (Text To Speech) deritzen. Teknologia hori erabilita, gastuak murrizteaz gain, eragiketa komertzialak azkartu egiten dira.
- **Hizkuntzaren egiaztapena:** iruzurra saihesteko bidea da.
- **Elkarrizketaren teknologia:** ahots aplikazio orok datuen kudeaketa edota deien fluxuaren garapena eskatzen dute bai eta negozioaren logika ere; horri esker, elkarrizketarik sofistikatuenak izan ditzakegu.

### Ahotsa euskaraz ezaqutzeko eta sintetizatze motoreak

Eusko Jaurlaritzak argi du informazioaren teknologiek zenbaterainoko garrantzia duten gaur egungo gizartearen alor guztietan. Horretaz jabetuta, Kultura Sailak **lankidetzak-hitzarmena** izenpetu zuen Scan-soft enpresarekin (orain Nuance izena du), ahotsa euskaraz ezaqutzeko eta sintetizatze motoreak garatzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko hainbat agente teknologikori (enpresak, unibertsitateak eta hizkuntza-baliabideen garatzaileak) proiektuak beharrezko zituen hizkuntza-baliabideak lantzeko enkargua egin zien. Horien artean, hauek dira aipagarrienak: 1) 25 milioi hitzetako **testu corpusa** eratzea; 2) 60.000 sarrera baino gehiagoko oinarriko **lexiko fonetiko** bat; 3) **Datu base akustikoak:** hizkuntza-ereduak sortzeko datuak izateko burututako grabaketak.

## Aditu programa



### Zer da?

Esan bezala, Eusko Jaurlaritzak, ahotsaren teknologiek Informazioaren Gizartearen garapenerako duten garrantziak jabetuta, eta euskarak aurrerapausoak eman ditzan, Belgikako Nuance enpresarekin ahotsa ezagutzeko (ASR) eta sintetizatze (TTS) motoreak **euskaraz ere** garatzeko eta merkaturatzeko hitzarmena sinatu zuen.

Teknologia hauei esker, Euskadiko enpresetan eta erakundeetan **aplikazioak** gara daitezke, euskarazko ahots-teknologiak erabilita, beren zerbitzuak eta produktuak eskain ditzaten.

Aditu programak honako **helburuak** ditu: euskarazko ahots-teknologiako produktuak ezagutaraztea, beraien integrazio-, garapen- eta hedapen-aukera hoberenak zehaztea eta produktu hauen ezarpen praktikoak lortzea enpresa eta erakundeetan.

2005ean eta 2006an, Aditu programaren barruan ahots-teknologiaren eta hauen aplikazioen hedapenerako **ekintzak** jarri dira abian horretarako aurkezpen orokorrak, banakako aurkezpenak eta bideragarritasun-txostenak eginez. Gaurko jardunaldi teknikoan arlo honetako ordezkari guztiak daude: garatzaileak, tokian tokiko banatzaileak, Nuance, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako erakunde eta enpresa interesdunak.

### Funtzionamendua

Aditu programaren bitartez, funtsean, bi prozesu egin daitezke: ahotsa testu bihurtu, sintesi motorraren bidez, eta testua ahots bihurtu, ezagutzaren motorraren bidez. Ahotsa testu bihurtze prozesuari ASR (Automatic Speech Recognition) esaten zaio. Teknologia horren bitartez, erabiltzaileak, ohi duen bezala hitz eginda, informazioa lortu eta eragiketak egin ditzake bat-batean, telefono finkoen, kablerik gabekoen eta beste zenbait gailuren bidez.

Bigarren prozesuari testuak ahotsa bihurtzeko teknologiari TTS (Text-to-Speech) deitzen zaio. Teknologia horren bitartez, testua ahots natural bihurtzen da eta erabiltzaileari neurrira egindako informazio zehatza eta dinamikoa ematen dio, giza ahotsaren tankera duen ahots automatizatuaren bidez, denbora errealean. Ahots sintetiko horrek (**Arantxa** izena eman diote) naturaltasuna eta ulergarritasuna ditu ezaugarri, gizakiaren antza duelako eta oso erraz ulertzen delako.

### Ahotsaren teknologiaren abantailak

Ahotsaren teknologiak erabili eta aplikazioak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek euren lanean euskara barneratzea da helburua, eta horrela, hurrengo abantailak lor ditzaten:

- 1) **Bezeroaren asebetetzea areagotzea:** sistema batera telefonoz sartzen diren bezeroek, berehalakoa, kalitatezkoa, beraien beharretara bideratutako eta itxaro-uneak ekiditen dituen erantzun bat nahi izaten dute, informazioa sarrera arin bat izan eta etengabe erabil dezaketena.
- 2) **Kostuen murrizketa:** zerbitzuak automatizatuz gero eta menu eraginkorren eta naturalen bidez deien iraupena murriztuz gero kostuak jaitsi egiten dira eta giza baliabideak balio erantsi handiagoko zereginetan ari daitezke.
- 3) **Enpresa-onurak:** bi dira nagusiki onurak; batetik, irudi korporatiboa hobetzea, eta bestetik, zerbitzu gehigarriak (informazioa, salmentak...) eskaini ahal izatea, kanpoaldera begira, komunikazio kanal berriak zabalduz.
- 4) **Lehiakortasuna areagotzea:** zerbitzua askoz arinago eskain liteke eta, gainera, eguneko 24 orduz.



## HIZNET 2006–2007 HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA ABIAN

**Euskararen normalkuntzan beharrezkoa den soziolinguistikako ezagutza kualifikatua eta sistematikoa ematea du helburu**

**E**usko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia II Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean antolatzen duten graduatu ondoko HIZNET 2006–2007 Hizkuntza Plangintza ikastaroan izena emateko epea zabalik da.

HIZNET on-line ikastaro malgua eta interaktiboa da, aurrez aurreko tailer praktikoez osaturik. Guztira 250 ordu ditu eta moduluka egiteko aukera ere badago. Ikasturtea 2006ko urrian hasi eta 2007ko ekainean amaituko da.

Ikastaro honek euskararen normalkuntzan behar-beharrezkoa den soziolinguistikako ezagutza kualifikatua eta sistematikoa ematea du helburu. Udaletako teknikariei, eskarmentua duten profesionalei, unibertsitate ikasketak burutu dituzten ikasle eta ikerlariei, hizkuntza normalkuntzan erantzukizun publikoa dutenei eta, oro har, euskaltzale guztiei dago zuzenduta euren eginkizunak aurrera eramateko oinarri sendoa izan dezaten.

2006–2007 ikastaroan seigarren ekitaldira iritsiko da HIZNET.


Argibide gehiago nahi izanez gero, jo ondoko helbidera:

### HIZNET

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa

Tel : 943 326398

HIZNET@asmoz.org



## THE CASE OF BASQUE: PAST, PRESENT AND FUTURE ARGITALPENA KALEAN



**T**he case of Basque: past, present and future ale monografikoa argitaratu du Soziolinguistika Klusterrak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Liburuak euskararen egoera soziolinguistikoa du aztergai eta J.A. Fishman irakasle entzute-tsuaq zuzentzen duen *International Journal of the Sociology of Language* (IJSL) aldizkariak 2005ean kaleratu zuen izen bereko ale monografikoaren jarraipen dugu oraingo argitalpen hau.

Maria Jose Azurmendik eta Iñaki Martínez de Lunak koordinatu dute zortzi artikuluz osaturiko argitalpena. Hona beraien izenak: Xabier Erizeren "History of the Basque Language: From the Discours of its Death to its Maintenance"; Koro Urkizuren "Basque Language Corpus Planning"; Xabier Mendiguren eta Joxe J. Iñigoren "The Social Movement in Favour of the Normalization of the Basque Language"; Iñaki Martínez de Luna, Xabier Isasi eta Olatz Altunaren "Use of the Basque Language, Key to Language Normalization"; Jose M. Zendoiaeren "Economic Development and the Basque Language: A sign of hope"; Jone M. Hernández, Olatz Olosa eta Iñaki Martínez de Lunaren "Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language"; Mikel Zalvide, Nicholas Gardner, Xabier Erize eta Maria-Jose Azurmendiren "The Future of Basque in RLS Perspective", eta Bojan Brezigar-en "Language Policies of the European Union with Reference to Regional or Minority Languages".

Ingeleseaz kaleratu da liburuak, helburu jakin batekin: euskararen egoeraren berri Euskal Herritik kanpo ematea, hau da, gure herritik kanpoko soziolinguistika bilgune eta adituen artean zabaltzea.

Liburuaren aurkezpen-ekitaldian Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarririk esan zuenez, *The case of Basque: past, present and future* lanak bi funtzio nagusi betetzen ditu: "bata, barrura begira; bestea, kanpora begira. Alegia, liburuak osatzeko egin den ahaleginak indarrak batu eta euskararen ibilbidearen irudia osatzen lagundu du, hizkuntzaren bizitasuna lupapean jarriz, lehen, orain eta etorkizunera begira".

*Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz*

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza** / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: berripapera@ej-gv.es